
Hispaniako Antzinateko sarkofagoen *Spolia* Erdi Aroan

Artearen eta Musikaren Historia saila

Artearen Historiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

Ikaslea: Sarai Rodríguez Cueva

Tutorea: Juan José Usabiaga Urkola

Ikasturtea: 2022-2023

Gasteiz, 2023ko maiatzaren 27a

Laburpena

Erromatar kulturaren, II. mendetik aurrera hildakoen gorpuak errausteko ohitura bertan behera utzi zen, jentilek zein kristauak gorpuen ehorzketa hileta-praktikatzat hartu baitzuten. Hori dela eta, material ezberdinetako sarkofagoak ekoiztu ziren hildakoen gorpuak biltegitatzeko. Hileta-objektu horiek, nagusiki, Erroman kokatutako tailerretan ekoiztu ziren, eta handik Inperioko beste toki batzuetara esportatu ziren. Hala ere, tokian-tokiko tailerrak ere egon ziren. Horregatik, gaur egun Europako eta Espainiako testuinguruan Antzinako sarkofago asko aurkitzen ditugu. Hala ere, adibide gehienak jatorrizko testuingurutik kanpo aurkitu dira, Erdi Aroko gizarteak espoliatu baitzituen.

Gradu Amaierako Lan honetan, Erdi Aroko gizarte kristauak eta musulmanak hispaniar testuinguruan gauzatu zituzten Antzinateko sarkofagoen berrerabilpen materialak (*spolium in se*) aztertuko dira. Izan ere, objektu horiek ikertuz, Erdi Aroko gizartearen pentsamoldea eta jarrera ulertzeko aukera izango dugu.

Horretarako, lehenik eta behin, *spolium* terminoak Erdi Aroan zuen esanahia ulertu behar da. Termino horrek historian zehar adiera ezberdinak izan ditu eta, beraz, funtsezkoa da haren jatorria eta bilakaera denboran zehar aztertzea. Antzinatean, hitz hori batailetan lortutako gerrako trofeoekin lotzen zen. Erdi Aroan, aldiz, kontzeptu horrek interpretazio desberdinak hartu zituen, hala ere, Antzinaroan zituen konnotazio negatiboak mantentzen jarraitu zituen. Errenazimentuan, ordea, gaur egun ematen diogun esanahia garatu zen, hau da, Antzinako materialen berrerabilera. Azkenik, ezinbestekoa da XX. mendean *spolia in se* eta *spolia in re* arteko bereizketa nabarmentzea, *spolia in se* fenomenotik ikertuko baitira lanaren adibideak.

Ondoren, Erdi Aroko gizarteak egindako *spolia* motak miatuko dira. Lehenik eta behin, kristauak egindako berrerabilpenak arakatuko dira, horren adibide anitzak aurkitu baitira. Berrerabilera horiek hiru kategoria nagusitan sailka daitezke: hileta-funtzioa, funtzio arkitektonikoa eta altzari-liturgiko funtzioa izan zutenak. Sarkofago bakoitza aukeratzeko arrazoia desberdina bazen ere, sarkofago pagano eta paleokristau guztien materialak eta ikonografiak prestigioa ematen zuten. Bestetik, musulmanek egindako berrerabilera aztertuko dira; izan ere, Antzinako sarkofagoak erabili zituzten beren boterea justifikatzeko, bai ur-pila gisa edo eraikuntza-material gisa. Laburbilduz, bi kultura horiek Antzinako sarkofagoak espoliatzera eraman zituzten arrazoiak ikertuko dira Erdi Aroko gizartearen izaera ulertzeko asmoz.

Aurkibidea

1. SARRERA.....	4
2. SARKOFAGOAK.....	5
3. SPOLIA KONTZEPTUA.....	8
a) Antzinaroa.....	8
b) Erdi Aroa.....	9
c) Aro Garaikidea: <i>Spolia in re</i> eta <i>Spolia in se</i>	11
4. HISPANIAKO ERDI AROKO SARKOFAGOEN SPOLIA MOTAK.....	12
a) Hilobi-funtzioa.....	12
b) Altzari-liturgikoak.....	17
c) Berrerabiltze arkitektonikoa.....	19
d) Al-Andaluseko berrerabilpenak.....	23
5. ONDORIOAK.....	26
6. ITURRIAK, BIBLIOGRAFIA, WEBGRAFIA ETA ARGAZKIEN ITURRIAK.....	28
a) Iturriak.....	28
b) Bibliografia.....	28
c) Webgrafia.....	30
d) Argazkien iturriak.....	31

1. SARRERA

“Hispaniako Antzinako sarkofagoen *spolia* Erdi Aroan” izenburua duen Gradu Amaierako Lan honetan, Erdi Aroko gizarteak Iberiar Penintsulan egin zituen Antzinako sarkofagoen berrerabilerak aztertuko dira. Hilkutxa horien berrerabilpenak arakatuz, Erdi Aroko gizarteak Antzinako objektuekiko zuen jarrera eta pentsamoldea ulertzea da helburu.

Alabaina, hasiera batean, islamiar arkitekturak Aro Modernoko Espainiaren nortasunean izan zuen eragina aztertuko zuen lan bat egitea zen nire asmoa. Izan ere, Antonio Urquiza Herrera-k EHU-n emandako hitzaldi bati esker, kristauek musulman artelanen inguruan egindako interpretazioekiko interesa piztu zituztela. Horrek nire ikuspegi zabaltzera, eta kultura eta garai desberdinetako artelanak garai batean nola ulertu ziren gai ezberdinak bilatzera eraman ninduen. Horrela, Erdi Aroko gizartearen pentsamoldea eta izaeratik, Antzinako sarkofagoak nola ikusi, ulertu eta berrerabili zituzten gaira heldu nintzen.

Lana hiru ataletan banatu da. Lehen atalean, Antzinateko sarkofagoei buruzko oinarritzko teoria azalduko da, sarkofagoen ezaugarriak eta funtzioak ulertzea beharrezkoa baita lanaren mamia ulertzeko. Ondoren, lanaren zatirik teorikoa garatuko da, eta bertan *spolium* kontzeptuaren esanahi-aldaketa azalduko da, Antzinarotik Aro Garaikidera arte. Bigarren puntu hori ezinbestekoa da Antzinateko objektuen aurrean Erdi Aroko gizarteak duen pentsamoldea ulertzeko. Azkenik, Erdi Aroko gizarteak Antzinateko sarkofagoei eman zizkien berrerabilpen motak aztertuko dira. Diskurtso arrazoitu eta dinamikoa egiteko asmoz, Iberiar Penintsulan kokatzen diren sarkofagoen adibidetan oinarrituko dira nire azalpenak. Bukatzeko, ideia guztien inguruko hausnarketa bat garatuko da.

Lan hau burutzeko, iturri bibliografiko asko bilatu, antolatu eta aztertu dira. Arazo gehien sortu dizkidanak gai espezializatu honi buruzko bibliografia espezifikoa falta izan da, kontsultatutako artikulua eta liburu askotan "spolia" terminoaren ikuspegi orokorra baino ez baitzen eskaintzen, sarkofago hispanoen kasu zehatzetan sakondu gabe.

Hiru iturri bibliografikoak funtsezkoa izan dira lan hau egiteko. Lehenik eta behin, Serafin Moralejo-k 1984an argitaratutako "La reutilización e influencia de los sarcófagos antiguos en la España medieval" ikerketa hori dugu¹. Obra hori ezinbestekoa da Antzinateko sarkofagoak

¹ MORALEJO, Serafin. "La reutilización e influencia de los sarcófagos antiguos en la España medieval". In: ANDREAE, Bernard eta SETTIS, Salvatore (ed.), *Colloquio sul reimpiego dei sarcofagi romani nel medioevo*. Pisa: BPR Publishers, 1984.

Erdi Aroko kristau erresumetan nola berrerabili zituzten ulertzeko. Halaber, artikulua horrek sarkofagoen adibide ugari eskaintzen ditu era labur eta zuzenean aztertzen dituen

Era berean, Moralejok 80ko hamarkadan hasitako ikerketa Begoña Torre Miguel-ek jarraitu zuen "Los sarcófagos de la Antigüedad reutilizados durante la Edad Media en la Península Ibérica" tesian². Ikerketa eguneratzeaz gain, *spolium* terminoari eta termino horrek Erdi Aroko gizartearentzat zuen esanahiari buruzko azterketa zabalagoa egiten du. Informazio hori nire lanaren bigarren atala gauzatzeko erabili dudana abiapuntua da.

Hala ere, bi autore horiek ez dute aipatzen Hispaniako musulmanek Antzinako sarkofagoei eman zieten berrerabilerak. Beraz, nire lanean horren berri emateko, Beltrán Fortes arkeologoaren iturrietara jo da, Medina Zaharako sarkofago erromatarren arkeometria egin baitzuen. Alabaina, iturri bibliografiko horrek ez zidan Antzinako sarkofagoen aurrean biztanleria musulmanaren pentsamoldea ulertzeko inolako daturik eman. Hori dela medio, Susana Capilla Calvo-ren "Madinat al-Zahra y la observación del tiempo: el renacer de la Antigüedad Clásica en la Córdoba del siglo X" bilatu eta aurkitu nuen, horren inguruan sakonki hitz egiten baita³.

2. SARKOFAGOAK

Sarkofagoak Antzinatean hildakoak lurperatzeko erabiltzen ziren ontziak edo hil-kutzak dira. Erromatar kulturaren pixkanaka errauste ohitura bertan behera utzi zen, II. mendetik aurrera jentilek zein kristauek gorpuen ehorzketa hileta-praktikatzat hartu baitzuten⁴. Hori dela medio, momentu horretan harrizko sarkofago ugari ekoiztu ziren eta hildakoaren gorpuak sarkofagoaren barruan sartzeak haren forma baldintzatu zuen. Horregatik, sarkofagoek forma kubikoa, laukizuzena, paralelepidea edo *lenos* izan zezaketen, kutxa monolitikoak tapa batez estaliak.

² TORRE MIGUEL, Begoña. *Los sarcófagos de la Antigüedad reutilizados durante la Edad Media en la Península Ibérica*. Oviedo: Universidad de Oviedo, 2022.

³ CALVO CAPILLA, Susana. "Madinat al-Zahra' y la observación del tiempo: el renacer de la Antigüedad Clásica en la Córdoba del siglo X", *Anales de Historia del Arte*, 22. zb., 2012.

⁴ CLAVERÍA NADAL, Montserrat. "El sarcófago romano. Cuestiones de tipología, Iconografía y centros de producción". In: NOGUERA CELDRAN, Jose Miguel eta CONDE GUERRI, Elena (ed.). *El sarcófago romano: contribuciones al estudio de su tipología, iconografía y centros de producción: Actas de las Jornadas de Estudio celebradas en la Universidad de Murcia del 8 al 17 de mayo de 2000*. Murcia: Universidad de Murcia, 2001, 22. or.

Hasiera batean, Erromatar Inperioan, hildakoen gorpuak luxuzko marmolezko sarkofagoetan hilobiratzeko praktika klase sozial altuenen artean zabaldu zen. Hala ere, hileta praktika hori orokortu zenean, gizarte-maila apaleko pertsonak ezin zuten marmolezko sarkofago bat ordaindu, zurezko eta harri leunezko sarkofagoak erosi zituzten. Hilobiaren materialaz gain, lurperatutako pertsonaren estatusa eta maila soziala ondoriozta zitezkeen sarkofagoa apaintzen zuten erliebeen bidez⁵. Izan ere, klase sozial baxuenek hildakoari buruzko oinarriko informazioa ematen zuten inskripzio sinpleen bitartez, eta aldiz, boteretsuek, beraien inskripzioekin batera, hil-kutzak erliebe zintzelatuz apaintzen zituzten gai mitologikoen edo hil osteko bizitzarekin lotutako gaien irudikapenekin.

Irudikatutako gaiak askotarikoak izan ziren eta erlijio bakoitzeko sinesmenekin bat zetozen. Jentilen kasuan, hildakoaren bertuteak eta izaera hilezkorra goraiatzen zituzten gaiak zizelkatzen zituzten, heriotza lurtarra garaitu zutela azpimarratuz. Horretarako, gai zehatzak irudiztatu zituzten: bertuteen eta musen irudikapena, hildakoak heroi mitologiko gisa, erretratuak edo azpi mundua, esaterako⁶.

Aitzitik, kristauak, erlijio-irakaskuntzak transmititzen eta betiko bizitza sinbolizatzen zituzten motibo ikonografikoak zizelkatzen zituzten sarkofagoetan. Kristauak *resurrectio carnis*-aren (haragiaren berpizte) fedean sinesten zuten. Uste horrek aditzera ematen zuen hildakoak munduaren amaieran salbatuko zirela eta, beraz, momentu horri iritsi arte gorpuek *dormitioa* egin behar zutela. Ideia horiek adierazteko, kristauak hiru irudikapen mota landu zituzten: ikur-irudi kristauak (krismoia, fenix hegaztia, izurdea, adibidez), gai pagano kristautuak (Herkules, Orfeo eta Endimion eta Selene, esaterako) edo *ordo comendationes animae* (Isaaken sakrifizioa, Daniel lehoien artean, Susana eta agureak, besteak beste)⁷.

Sarkofagoetan landutako erliebeak, kutxaren aurrealdean ez ezik, alboetan eta estalkietan ere zizelkatzen ziren. Motibo horiek zentzu metagarria zuten eta *horror vacui* delakoaren printzipioari jarraitzen zioten, hau da, espazio guztia xehetasun handiko apainduraz betetzea zuten helburu. Hori dela medio, gaiak frisetan banatuta zeuden eta eszena bakoitza askotan konpartimentu arkitektonikoetan aldenduta edo taldekatuta zegoen. Hala ere, erliebedun sarkofago gehienek zentzu narratiboa zuten arren, baziren *strigilozko* dekorazioa zuten

⁵ CAILLET, Jean-Pierre eta LOOSE, Helmuth Nils. *La vie d'éternité: la sculpture funéraire dans l'antiquité chrétienne*. Paris: Les Éditions du Cerf, 1990, 8. or.

⁶ CLAVERÍA NADAL, Montserrat. Op.cit., 31-33. orr.

⁷ CAILLET, Jean-Pierre eta LOOSE, Helmuth Nils. Op.cit., 40-64. orr.

sarkofagoak ere, zeinak garbitasun eta araztasun ikurtzat hartzen zirenak; izan ere, estrigiloa, zikinkeria kentzeko erabiltzen zen tresna zen.

Orobat, garrantzitsua da azpimarratzea gaur egun kontserbatzen diren sarkofagoak nahiz eta polikromatuta ez egon, horietako asko Antzinatean kolorezko pinturekin eta urrezko xaflekin apainduta egon zirela. Margoa, marmolean ondo blaituta geratu ahal izateko teknika berezi bat erabiltzen zen, zeinetan lehenengo, pigmentua argizariarekin diluitzen zen eta, ondoren, behin ondo berotuta zegoela, marmolean aplikatzen zen marmola ondo inpregna zezan⁸.

Antzinako sarkofagoak batez ere Erroman kokatutako lantegietan ekoizten ziren eta handik Inperioko beste leku batzuetara esportatu ziren, hala nola, Hispania, Campania, Lyon edo Afrikako Iparraldera⁹. Halaber, Inperioko hainbat probintzian tokiko lantegiak ezarri ziren, ontzi horien eskaria oso handia baitzen. Lantegi horietan tamaina, material eta estilo ezberdinetako sarkofagoak lantzen ziren, jabeen nahietara egokitzen zirenak. Hala ere, lantegiek serieko sarkofagoak ekoizteko moldeak ere sortu zituzten, eta horrek ekoizpenean eraginkortasun handiagoa eta kostuak murriztea ahalbidetu zuen.

Milango Ediktua (313) baino lehen, kristauak euren hildakoak atari zabaleko nekropolietan, eta lur azpiko katakonbetan lurperatzen zituzten. Alabaina, Konstantinok kristautasunaren tolerantzia erlijiosoa aldarrikatu zuenean, kristauak hilerri asko *Cella Memoriae* baten inguruan sortu zituzten, martiri kristauen erlikiak gordetzen ziren lekuen ondoan lurperatzeak, hildakoari heriotzaren ondorengo bizitzan leku sakratua bermatzen baitzion. Bestalde, paganoak eta kristauak ziren zenbait familia erromatar aberatsek beren gorpuzkiak mausoleoetan gordetzen zituzten. Gainera, zenbait kristau boteretsu basilikatan kokatzen zituzten sarkofagoak.

Antzinako sarkofago asko jatorrizko hileta-testuinguruan aurkitu badira ere, sarkofago gehienak beren testuingurutik at iritsi dira. Izan ere, Erdi Aroko gizarteak pieza horien *spolia* egin zuen, sarkofagoak hainbat testuingurutan txertatuz eta haien funtzioak eraldatuz. Erdi

⁸ CLAVERÍA NADAL, Montserrat. Op.cit., 23. or.

⁹ RODÁ DE LLANZA, Isabel. "Producción, materiales y circulación de sarcófagos en el Imperio Romano". In: NOGUERA CELDRAN, Jose Miguel eta CONDE GUERRI, Elena (ed.). *El sarcófago romano: contribuciones al estudio de su tipología, iconografía y centros de producción: Actas de las Jornadas de Estudio celebradas en la Universidad de Murcia del 8 al 17 de mayo de 2000*. Murcia: Universidad de Murcia, 2001, 69. or.

Aroan hilkutxa horiek Hispaniako testuinguruan hartu zituzten erabilpenak aztertzeko, ezinbestekoa da *spolia* terminoa definitzea.

3. SPOLIA KONTZEPTUA

Euskaltzaindiaren Hiztegiak honela definitzen du espoliatu aditza: “Norbaiti, indarrez eta bidegabe, berea dena kendu”. Definizio etimologikotik haratago joanez, *spolia* elementu klasikoen berrerabilpen material edo sinbolikoaren fenomeno da, Antzinarotik burutu zena baina Erdi Arotik aurrera areagotu zena¹⁰. Hala ere, kontuan izan behar da kontzeptu horren definizioa ez dela lineala izan historian zehar; izan ere, Antzinatek existitu den kontzeptua baden ere, ez zuen XVI. mendera arte Antzinateko materialen berrerabilpenaren konnotazioa lortu¹¹. Beraz, Erdi Aroan *spoliak* zuen esanahia aztertu aurretik, halabeharrezkoa da beste garai batzuetan izan zuen esangura berrikustea. Modu honetan, ulertu ahal izango dugu Erdi Aroko gizarteak termino horren inguruan izan zuen hautematea.

a) Antzinaroa

Salvatore Settis-ek zioen garrantzitsua zela jarraitutasun-eredu bat ezartzea tradizioaren eta tradizioetik kontserbatzen ziren materialen eta piezen arteko orekari eusteko¹². Ildo horretan, Antzinatea jarraitutasun horren adibide bat zen, non elementuen berrerabilpena eta egokitzapena oso lotuta zeuden *auctoritas*-ekin.

Auctoritas Antzinaroan agintari edo buruzagi batek zuen prestigioari eta autoritateari erreferentzia egiten dion terminoa da. Autoritate hori sendotzeko, liderrek antzinako monumentuetako elementuak berrerabili zituzten eraikin berrietan, tradizioari errespetua eta jarraitutasuna erakusteko. Konstantinoren Arkua berrerabilpen horren irudizko adibidea da, non arpilatutako materialak erabili ziren arrazoi ideologiko eta propagandistikoekin, hala nola, Konstantino enperadore berri bezala legitimatzeko eta iraganeko enperadore handiekin lotzeko¹³. Beraz, tradizioaren kontserbazioaren eta garai berrietara egokitzearen arteko oreka

¹⁰ MORÁIS MORÁN, Jose Alberto. *El sustrato de la Antigüedad “Clásica” en la escultura románica Hispana*. Leon: Universidad de León, 2009, 275. or.

¹¹ KINNEY, Dale. "The Concept of *Spolia*." In: RUDOLPH, Conrad (ed.). *A Companion to Medieval Art: Romanesque and Gothic in Northern Europe*. Malden: Blackwell Publishing, 2006, 233. or.

¹² TORRE MIGUEL, Begoña. Op.cit., 38. or. Begoñak erabilitako jatorrizko erreferentzia: SETTIS, Salvatore. "Continuità, distanza, conoscenza. Tre usis dell'antico nell'arte italiana". In: EINAUDI, Giulio. *Dalla tradizione all'archeologica*. Torino: Giulio Enaudi, 1986, 443-444. orr.

¹³ KIILERICH, Bente. "Antiquus et modernus: *Spolia* in Medieval Art: Western, Byzantine and Islamic". In: QUINTAVALLE, Carlo Arturo (ed.). *Medioevo: il tempo degli antichi*. Milan: Electa, 2006, 135. or.

mantentzeko, tradizio zaharreko elementuak eraikuntza-material gisa berrerabiltzea beharrezkoa zen.

Hala ere, 458. urtean, Maioriano enperadoreak lege batzuk promulgatu behar izan zituen espoliazioa debekatzeko. Lege horiek Teodosioren Kodean jasota zeuden eta Erromako eraikin berrietan antzinako materialak berrerabiltzea debekatzen zuten, antzinako ondare arkitektonikoa babesteko. Egoera horri hainbat faktorek eragin zioten. Alde batetik, Nikodemiako ediktuak kristautasunaren ezarpenaren hasiera markatu zuen, hortaz, monumentu paganoak alde batera utzi ziren. Bestalde, hiriburua Konstantinoplara lekualdatu zenean, eraikin eta lantegi ugari bertan behera utzi zituzten Erroman. Ondorioz, espoliazioa sistematizatu egin zen eta horrek Antzinako Erromako ondarea suntsitzea eta kontrolik gabe galtzea ekarri zuen.

Spolium terminoa garai hartako hainbat testutan agertzen zen arren, jada aipatutako Teodosioren Kodean kasu, garrantzitsua zen gerrako harrapakin gisa hartutako objektuez eta eraikinen legez kanpoko desegiteaz ari zela ulertzea. Beraz, aldi honetan egokiagoa litzateke, Joseph Alchermes-ek dioen bezala, «birziklatze» terminoa erabiltzea gaur egun *spoliumtzat* hartzen dugunari erreferentzia egiteko¹⁴.

b) Erdi Aroa

476. urtean Mendebaldeko Erromatar Inperioa uzkaile izanak eragin nabarmena izan zuen Erdi Aroko gizarteak Erromari buruz zuen ikuspegian. Alde batetik, pertsona batzuk Erromatar Inperioaren irudi loriatsutik urrundu ziren, iraganaren handitasuna berreskuratzeko ezintasunaren aurrean. Bestalde, beste batzuk iragan inperialaren handitasuna berreskuratzeko etengabeko nahia baloratzen eta sentitzen hasi ziren. Hori dela medio, Erdi Aroan zehar “Berpizkunde” batzuk eman ziren Antzinaroko kultura berpizteko helburuarekin.

Berpizkunde horietako batean, zehazki VIII- IX. mendeetako Karolingiar Pizkundean, Antje Krug-ek *spoliumaren* esanahia “gerrako trofeo edo harrapakin” izatetik “Erromatar Inperioaren lekuko” izatera aldatu zela azaleratu zuen¹⁵. Kontuan izan behar da terminoek ez

¹⁴ TORRE MIGUEL, Begoña. Op.cit., 44. or. Ikerlari honek erabilitako jatorrizko erreferentzia: ALCHERMES, Joseph.”*Spolia* in Roman Cities of the Late Empire: Legislative Rationales and Architectural Reuse”, *Dumbarton Oaks Papers*, 48. zk., 1994, 178. or.

¹⁵ Ibid., 50. or. Begoñak erabilitako jatorrizko erreferentzia: KRUG, Antje. “*Spolien* als Trophäen”. In: SCHATTENER, Tomas eta VALDES, Fernando (ed.). *Spolien im Umkreis der Macht : Akten der Tagung in Toledo vom 21. bis 22. September 2006 = Spolia en el entorno del poder : actas del*

dutela esanahi desberdinek hartzen egun batetik bestera, eta horregatik Erdi Aroko testu ezberdinetan, adibidez, "Anales regni francorum" izenekoan, *spolium* terminoak suntsipen-konnotazio negatibo hori izaten jarraitzen du. Alabaina, aro honetan Antzinaroko objektuen berrerabilpena aipatzeko, Eginardo (VIII. mendea) bezalako idazleek *devehere*, *adapte* eta *coaequare* bezalako terminoak erabili zituzten beren testuetan.

Behin "antiqui" (Antzinateari erreferentzia) eta "moderni" (Erdi Aroari erreferentzia) terminoen arteko bereizketa ezarrita, Erdi Aroko enperadore eta agintariek Antzinateko aztarnak helburu ezberdinetarako berrerabili zituzten. Izan ere, Teodorikok helburu estetikoetarako erabiltzen zituen bitartean, Karlo Handiak bere legitimazioa objektu hauen bidez bilatzen zuen, tradizio inperiala berreskuratuz¹⁶. Azken honek, Mendebaldeko Erromatar Inperioa desagertu zenetik, Inperio boteretsuena sortu zuen, Karolingiar Inperioa. Bere helburu nagusia Erdi Aroko esparru politiko, kultural eta erlijiosoetan kultura klasikoa berreskuratzea izan zen eta horretarako Akisgraneko hiria bigarren Erroma bihurtu zuen. Gainera, bertara Antzinako Erromako piezak eraman zituen, Antzinatearen handitasuna gizartearen aurrean erakusteko. Beraz, Karlo Handirentzat *spolia* gerrako trofeoak izateaz gain, iragan eredugarri baten lekukoa zen.

X. mendeko Otondar Berpizkundean, Antzinateko elementuak, iragan eredugarri baten testigantza izatearekin batera, historia metatu baten erakusle ziren. Izan ere, elementu pagano, paleokristau, bizantziar eta merovingiarrek osatutako luxuzko piezak lantzen zituzten, iragan aberats baten lekuko zirenak, hala nola, Lotario-ren gurutzea¹⁷. Halaber, objektu hauek Otondar dinastiaren unibertsaltasunarekin bat egiten zuten. Era berean, pieza hauek beharrezkoak ziren botere erlijioso eta laikoak legitimatzeko. *Spoliaren* azken funtzio hau, Erdi Aroko XII. mendeko Errenazimentuan ere erabili zen Elizaren handitasuna eta legitimitatea erakusteko, hegoaldeko Italia normandiarren eskuetan erortzen zen garai batean¹⁸. Ondorioz, agerian geratu zen Antzinako materialen berrerabilpenaren fenomenoak oso lotuta zegoela boterearekin eta beraz, legitimazio sinbolikoarekin.

coloquio en Toledo del 21 al 22 de septiembre 2006. Mainz: Instituto Provincial De Investigaciones Y Estudios Toledanos, 2009, 41-42. orr.

¹⁶ BRENK, Beat. "*Spolia* from Constantine to Charlemagne: Aesthetics versus Ideology". In: TRONZO, William et al. *Studies on Art and Archeology in Honor of Ernst Kitzinger on His Seventy-Fifth Birthday*. Cambridge, Dumbarton Oaks Papers, 41. lib., 1987, 109. orr.

¹⁷ GARRISON, Elisa. "Otto III at Aachen", *Peregrinations: Journal of Medieval Art and Architecture*, 3. lib., 2010, 85-89. orr. <https://digital.kenyon.edu/perejournal/vol3/iss1/4> (kontsulta data 2023/04/16)

¹⁸ TORRE MIGUEL, Begoña. Op.cit., 71. orr.

Gaur egungo *spolium* terminoaren esanahia Errenazimentuan sortzen da, antikuarioentzako bidaia-gidak sortu zirelako eta arkitektoek Antzinako objektuen garrantziaz jabetu zirelako beren diseinuak hobetzeko eta baliotsuago bihurtzeko. Beraz, momentu hartan berrerabilitako objektuei garrantzia ematen hasi zitzairen, nahiz eta jatorrizko testuingurutik at egon. Hala ere, *spolium* terminoaren erabilera ez da XX. mendera arte orokortuko.

c) Aro Garaikidea: *Spolia in re* eta *Spolia in se*

XX. mendean, *spoliuma* ikerketa-ildo independente bihurtu zen, eta horrek historialariak Antzinateko piezen gaineko ikerketa-ikuspegia aldatzea ekarri zuen. Izan ere, arte klasikoaren iraunkortasunaren azterketa alde batera utzi eta testuinguru berrian piezaren esanahia eta funtzioa ikertzen hasi ziren¹⁹.

Ikuspegi arkeologikotik, materialak berrerabiltzeak ingurunearen jatorrizko testuingurua eta esanahia galtzea eragin zuen, baina artearen historiako ikuspuntutik objektu espoliatuek testuingurua aberastu zuten, espazioari nortasun eta funtzio berria emanaz. Halaber, bi motatako *spolia* fenomenoak berezi ziren, *spolium in se* eta *spolium in re*. Bi kontzeptu hauek ikerlari desberdinek sakonki aztertu eta interpretatu dituzte, baina guk definitu eta bien arteko aldea ulertu besterik ez dugu egingo.

Gaur egun, historiografiak honela definitzen du *spolia in se* fenomenoak: pertsona batek, normalean Erdi Aroko artisau batek, Antzinako objektu bat eskuratu eta testuinguru berri batean berregokitzeko ekintza. Berrerabilpen horren arrazoiak anitzak izan daitezke, baina P. Cressier-ek bi arrazoi nagusi desberdintzen ditu. Alde batetik, Antzinako objektuen *spoliuma* premia praktikoa batengatik, hau da, material edo diru faltagatik. Bestalde, artisauek alde aurretik aukeratutako objektuen berrerabiltzea helburu jakin baterako, hau da, ideia bat transmititzeko²⁰. Aldiz, *spolium in re* fenomenoak objektuaren jabetze intelektuala da, eta ez materiala. Zehatzago esanda, arte klasikoaren formula estilistiko eta ikonografikoaren berrinterpretaketa edo kopiaketa da²¹.

¹⁹ KINNEY, Dale. “*Spolia. Damnatio and renovatio memoriae*”, *Memoirs of the American Academy in Rome*, 42. lib., 1997, 117. or.

²⁰ CRESSIER, Patrice. “El acarreo de obras antiguas en la arquitectura islámica de primera época”, *Cuadernos emeritenses*, 17. zk., 2001, 311. or.

²¹ BRILLIANT, Richard eta KINNEY Dale. *Reuse Value. Spolia and Appropriation in Art and Architecture from Constantine to Sherrie Levine*. Farnham: Ashgate Publishing Limited, 2011, 4. or.

4. HISPANIAKO ERDI AROKO SARKOFAGOEN *SPOLIA* MOTAK

Behin sarkofagoen ezaugarri orokorrak azalduta, *spoliaren* esanahia Erdi Aroko gizartearen ikuspuntutik aztertuta eta gaur egun ikertzaileek bereizi duten *spolium* kontzeptua kontuan hartuta, Antzinaroko sarkofagoetatik *spolia in se* gertakaria aztertuko da. Bertan, islamiar inbasioaren, kristau erresistentziaren eta Errekonkistaren ondorioz eman zen egoera berezira bideratuko da lana, gauzatutako berrerabilpenak bereziak izan baitziren²².

a) Hilobi-funtzioa

Iberiar Penintsulako garai paleokristauan ehorzketa praktikari eutsi zitzaion; izan ere, praktika hori egokiena zen hildakoaren gorpuak atsedean hartzeko Azken Auziaren ondoren berpiztu baino lehen. Sarkofagoen eskariak gora egin zuenez, Erromatik eta Kartagotik sarkofagoak inportatu ziren eta bertako tokian tokiko lantegietan asko ekoitzi ziren, Burgoseko Burebako lantegian gertatu zen bezala. Bestalde, Erdi Aroko eliteetako kideek Antzinateko sarkofagoak berrerabili zituzten beren gorpuak lurperatzeko. Izan ere, sarkofago horietan hobiratzeak Antzinateko iragan loriotsua aipatzen zuen, eta hildakoak kristau historiaren parte bihurtzen zituen²³. Gainera, antzinako hilobi horien kalitateek eta laborantzek hildakoaren estatusa eta boterea azpimarratzen zuten. Hori dela medio, hilobi funtzio duten Antzinateko sarkofago espoliatu ugari iritsi zaizkigu, hots, antzinateko sarkofagoak berezko funtzioa mantenduz.

Ithacio-ren sarkofagoa (1. irudia) jatorri ezezaguneko V. mendeko hilobia da, XVI. mendetik Oviedoko katedralean kontserbatzen dena. Hala ere, tapa baino ez da mantentzen, kutxa galdu egin baita. Armado Carballo-ren testigantza arabera, badakigu piezaren jatorrizko kokapena ez zela katedrala, 1696an Andra Maria basilikaren mendebaldean eraikitako Asturiasko Monarkiako hileta-panteoian baitzegoen²⁴. Ondorioz, Serafin Moralejok Alfonso III.a Handiak Ithacioren sarkofagoa IX. mendean bere hilobi bezala berrerabili izanaren hipotesia aurkeztu zuen²⁵. Hala ere, gaur egun ez dago argi, ez baitago hipotesi hori baieztatzen duen garaiko inskripzio edo iturririk.

²² MORALEJO, Serafin. Op.cit., 187. or.

²³ Ibid., 189. or.

²⁴ MORÁIS MORÁN, José Alberto.: *Roma en el Románico. Transformaciones del legado antiguo en el arte medieval. La escultura hispana: Jaca, Compostela y León (1075-1150)*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 2013, 274-275. orr. Ikerlariak erabilitako jatorrizko erreferentzia: DE CARVALLO, Luis Alfonso. *Antigüedades y cosas memorables del Principado de Asturias*. Oviedo: 1988, 225. or.

²⁵ MORALEJO, Serafin. Op.cit., 187-188. orr.

Sarkofagoaren estalkia Estremozeko (Portugal) marmol zurizkoa da, eta isurialde bikoitz batez osatuta dago²⁶. Hilarrian latinezko inskripzio bat dago, bi esaldiz osatua:

*INCLVSIT TENERVM PRAETIOSO MARMORE CORPVUS AETERNAM IN
SEDEM NOMINIS ITHACII.*

Beraz, epitafioa, lurperatutako pertsonaren izena aipatzeaz gain (Ithacii), gazte izenondoa (*Tenerum*) aipatzen du. Ondorioz, autore batzuek uste dute jatorriz sarkofagoa Ithacii izeneko haur batena izan zela²⁷.

Ikertzaileek zenbait arrazoi dituzte sarkofago hori Alfontso III.a asturiar erregeak berrerabili zuela pentsatzeko. Lehenik eta behin, materialagatik, Erdi Aroan marmola oso material baloratua baitzen, Antzinako obretan lortutako ohoreagatik. Horregatik, marmola prestigioaren sinonimo bihurtu zen, eta material honetako hil-kutxan ehorzteak hildakoaren autoritate-printzipioa indartu eta duintasuna ematen zion²⁸.

Beste arrazoi bat laudaren lanketa eta ikonografia izan zitekeen; oro har, pieza honek salbazioari eta paradisuko bizitzari lotutako gai bat irudikatzen du, Lorategi Zerutiarra, hain zuzen ere. Hori dela eta, krateretatik edaten ari diren hegaztiak, bizitzaren zuhaitzak, krismoia eta landare-roleoak zizelkatuta agertzen dira (2. irudia). Erregeak uste zuen, motibo horiek zituen sarkofago batean ehorztean, bere arima salbatu eta Paradisura zihoala zuzenean. Halaber, zizelkatutako arrazoi horiek hain fin landu ziren, ezen Ravennako giro eskultorikoaren kalitatearekin lotu ziren²⁹. Beraz, sarkofagoaren *spolia* pieza perfektua zelaren ideari lotuta egon zitekeen, bai ikonografikoki bai eskultura klasikoak proiektatzen zuen ospe artistikoagatik.

Azkenik, autore batzuek adierazi dute erregeak pieza hori hautatu zuela Asturiasko gorte-tradizioari jarraitzeko, landare-motiboak zituzten pieza klasikoak berrerabiltzeko joera baitzuten³⁰. Izan ere, praktika hori beste pieza espoliatu batzuetan ikus daiteke, esate baterako San Julian de los Pradoseko absidearen alboetan kokatutako marmolezko bi pilastretan. Era berean, Ithacioren sarkofagoa Asturiasko monarken hil-panteoian egoteak, agerian uzten du

²⁶ÁLVAREZ VIDAL, Sergio et al. “La utilización del mármol de Estremoz en la escultura hispánica de la Antigüedad Tardía: Los sarcófagos”, *DigitAR*, 3. zk., 2016, 124. or.

²⁷MORÁIS MORÁN, José Alberto.: “Roma en el Románico...”, op.cit., 308. or.

²⁸Ibid., 283. or.

²⁹Ibid., 278. or.

³⁰Ibid., 277. or.

plastika bisigodoaren jarraitasuna, tenpluen barruan Antzinako piezak sartzeko interesa baitzuten. Halaber, Isidro Bango Torviso ikertzaileak hipotesi bat planteatu zuen, Gijonen erromatarren garaian landare-motibo piezen ekoizpenari eskainitako tailer bat zegoela argudiatuz³¹. Beraz, litekeena da pieza horiek erregeek espoliatzea eta, ondoren, beste eraikin batzuetan txertatzea eta beste funtzio baterako berrerabiltzea.



1. irudia. Ithacioren sarcofagoaren xehetasuna (V. mendea), Oviedoko katedrala.



2. irudia. Ithacioren sarcofagoa (V. mendea), Oviedoko katedrala.

³¹ TORRE MIGUEL, Begoña. Op.cit., 176. or. Ikertzaileak erabilitako jatorrizko erreferentzia: BANGO TORVISO, Isidro. “Los expolios del paisaje monumental y la arquitectura hispana de los siglos VII al XI. Reflexiones sobre el proceso constructivo de San Miguel de Escalada”, *De arte: revista de historia del arte*, 7. zk., 2008, 11. or.

Hildakoak Antzinako sarkofagoetan lurperatzea, errege hispaniarren artean hedatu zen praktika bat izan zen: Ramiro II.a Aragoikoa IV. mendeko sarkofago pagano batean ehortzi zuten eta Petri III.a Aragoikoa Egiptoko porfidozko sarkofago batean lurperatua izan zen. Hala ere, nobleen artean ere ezagutarazi egin zen, honek euren estatusa eta boterea agerian uzten baitzituen. Iberiar Penintsulan, praktika horren adibide asko aurki ditzakegu, esate baterako Fernan Gonzalez eta Santxa-ren sarkofagoak edo Husillos-eko sarkofagoa, xehetasunez aztertuko dugunaz gain: Osorio Gutiérrez “Konde Santuaren” sarkofagoa³² (3.irudia).

Osorio Gutiérrez X. mendeko, Leongo Ordoño IV.a erregearen leinukoa noble nabarmena izan zen. Galizian eta Camposen noblea izateaz gain, Osorio ezaguna zen bere erlijio-debozioagatik eta mairuen aurkako borrokan parte hartu izanagatik. Izan ere, Jerusalemara erromes joan zen eta Lourenzako San Salvador monasterioa sortu zuen, Villanova herrian (Lugo), bere fedearen eta erlijioari eskainitako dedikazioaren erakusgarri³³. Hil zenean, bere gorpua sarkofago batean lurperatu zuten berak sortutako monasterioan. Gaur egun, sarkofagoa eta haren gorpuzkiak jatorrizko lekuan kontserbatzen dira.

Lurperatuta dagoen sarkofagoaren inguruan Aita Yepék zabaldutako tradizio mitiko bat dago. Kondairak dio Kondeak sarkofagoa erromesaldian erosi zuela, hots, Jaffan eta, ondorioz, bertatik Galiziara itsasoz iritsi zela. Hala ere, jakina da Akitanian landu zen sarkofago paleokristaua dela, V. mendekoa³⁴. Horrek adierazten du, garai hartan, Galiziako kostaldearen eta Bordeleko kostaldearen artean harreman kulturalak eta komertzialak egon zirela.

Marmol gris urdinxkaz egindako sarkofago honek apaingarri sinpleengatik nabarmentzen da, tapan ezkata motiboak agertzen ditu eta, aurrealdean, krismoiairen alde bakoitzean uztarri edo hiru formako estrigiloak. Orobat, sarkofagoa sostengatzen duten bi zutabeak ikus daitezke,

³² European ere aurkitzen ditugu hilobi-funtzioa duten Antzinako sarkofagoak, hala nola, Santa Elenaren sarkofagoa (Erdi Aroan Anastasio IV.a Aita santua berrerabili zuena). Honi buruzko informazioa: ELSNER, Jas. ‘The Christian Museum in the South of France: Antiquity, Display and Liturgy from the Counter-Reformation to Aftermath,’ *OAJ*, 3. zk., 2009, 181-204. orr.

³³ MARTINEZ COUCE, Silvia. “Aproximación al patrimonio artístico y etnográfico relacionado con la figura del Conde Santo”. In: RECUERO ASTRAY, Manuel et al. (ed.). *El legado cultural de la Iglesia Mindoniense: Congreso do Patrimonio da Diocesis de Mondoñedo*. Ferrol: Universidad da Coruña, 508. or.

³⁴ VERASTEGUI Y SILVA, Soledad. “Los sepulcros de los santos: la piedad medieval, el sentido del “decoro” y el ornato durante los siglos del románico”, *Edad Media. Revista Historia*, 10. zk., 2009, 101. or.

entasi nabarmenarekin eta dekorazio korintoarreko kapitel luzangekin. Alberto Moráis-ek aditzera ematen du, Osorio kondeak sarkofagoaren berrerabilpen hori zutabeen presentziagatik egin zuela, horrek hildakoaren santutasuna indartzen eta loriatzen baitzuen³⁵. Halaber, Kondeak uste zuen Antzinateko sarkofago batean lurperatzeagatik, Antzinatean lurperatuak izan zirenen bertute eta dohainak berenganatuko zituela. Hilobia, beraz, bizitzan izan zuen garrantzi politiko, sozial eta ekonomikoaren *post mortem* jarraipenaren sinbolo da.

Sarkofagoan ehorttua izan ondoren, Osorio kondeak herri-debozio handia jaso eta santutzat jotzen. Debozio hori XI. eta XII. mendeen artean areagotu zen. Kondeak sortutako monasterioa gainbeheran zegoenean, monjeek Konde Santuaren oroimena erabili zuten erromesak erakartzeko. Yepesek erromesek monasterioa bisitatzen zutela eta kondearen sarkofagoaren inguruan gurtza berezi garatu zela aipatzen du:

*“(...) porque la gente (que con gran deuocion le va à visitar) se pone debaxo, y gustan de topar con la cabeça, y con las manos en la santa arca: la cual está agujereada por dos partes, y en cada vna se vee el circulo, del tamaño de un real de ancho, tienen deuocion, de meter por alli los dedos, y encuentran con vna caja de madera, en donde està el rico deposito.”*³⁶

Beraz, pelegrinek ukipen-erlikien fenomenoak burutzen zuten, uste baitzuten santua ukitzean bedeinkatuak izango zirela eta haien gaixotasunetatik sendatuko zirela. Ondorioz, Kondearentzat pieza honek hil-kutxa funtzioa izan bazuen ere, Erdi Aroko gizartearentzat erlikia-ontziarena izan zuen, santu baten gorputza barruan baitzuen.

³⁵ MORÁIS MORÁN, Jose Alberto. “*El sustrato de...*”, op.cit., 344. or.

³⁶ YEPES, Antonio. *Crónica General de la Orden de San Benito*. Iratxe: 2. lib., 1615, 356. or. (1960ko berrargitalpena)



3. irudia: Osorio Gutiérrez “Konde Santuaren” sarkofagoa (V. mendea),
Lourenzako San Salvador monasterioa.

b) Altzari-liturgikoak

Erdi Aroan, Europako eliza katolikoak elizkizunentzako eta mezako errituak ospatzeko ezinbestekoak ziren altzari liturgikoz hornituta zeuden. Hispaniar testuinguruan, Antzinako sarkofago batzuk altzari liturgiko gisa berrerabili ziren, bataiarri gisa bereziki³⁷. Bataiarria, bataioa gauzatzeko (kristautasunaren lehen sakramentua), elizetan egoten den ontzi handi oinduna da. Sarkofago askoren formak eta ikonografiak bataiarri gisa berrerabiltzea ahalbidetu zuten, diseinuan eta helburu liturgikoan zuen antzekotasunagatik. Berrerabilera horren adibide bereizgarrietako bat Sant Vicenç d'Àger parrokiari dagoen sarkofagoa da. (4. irudia).

Sarkofago hori, bataiarri bezala berrerabili zen San Pereko Kolegiatan XIII. mendetik aurrera, Pere abadeak bataioa murgiltze bidez ezarri zuenetik, hain zuzen, eta horrela jarraitu zuen 1840 urtean kolegiata kuartel militarra izan zen arte. Sarkofagoa kolegiatara noiz iritsi zen baieztatu ezin den arren, bakarrik kolegiatako kideek erabiltzen zutela esan daiteke. Azken

³⁷ Europan ere aurkitzen ditugu bataiarri funtzioa duten Antzinako sarkofagoak, hala nola, San Giorgio Martire elizan (Napolen) kokatzen den sarkofagoa. Honi buruzko informazioa: PALMENTIERI, Angela. *Civitates spoliatae. Recupero e riuso dell'antico in Campania tra l'età post-classica e il medioevo (IV-XV sec.)*. Napolen: Università degli studi di Napoli Federico II Facoltà di Lettere e Filosofia, 2009-2010, 471. or.

finean, kolegiata, kuartel militar izatera pasatu zenean, sarkofagoa San Vicent d’Ager parrokiara lekualdatua izan zen³⁸.

Àgerreko sarkofagoa Erromatik inportatu zela uste da; izan ere, sarkofagoaren dekorazioak pentsarazten digu Antzinaroan goi mailako pertsona bat (patrizio bat ziurrenik) lurperatzeko erabili zela. Horren adibide argi bat da, sarkofagoaren kuxtaren aurrealdean *imago clipeata*-n estamentu altuaren pertsonaia baten bustoa agertzea, zeinak erromatarren ohiko toga daraman. Serafin Moralejoren hipotesiaren arabera, litekeena da XI. mendean Arnau Mir de Tost Urgell Konderriko noble eta militarrek Bartzelonatik enkargatu izana bere ehorzketan erabiltzeko asmoz³⁹.

Greziako Paro uharteko harrobietatik ateratako marmolarekin egindako sarkofagoa da, hortaz, material aberatsez landutako hilobia da. Alabaina, egun, bakarrik estilo helenistikoko erliebeekin apainduta dagoen hilkutxa baino ez da kontserbatzen. Hori dela medio, pieza II. mendearen amaieran ekoitzi zela ondoriozta daiteke.

Bataiarri bezala zergatik berrerabili zen faktoretako bat ulertzeko, beharrezkoa da sarkofagoaren aurrealdean irudikatutako gaia aztertzea. Irudikatuko gaia itsas *thiasos* bat da, zehazki II. K.o. mendearen bigarren erditik aurrera sarkofagoen erreperitorio figuratiboari gehitu zitzaion gaia⁴⁰. Bi nereida bikote agertzen dira iktiozentauroen bizkarren gainean zamalkatzen, hildakoaren erretratuaren (*clipei* barruan) inguruan simetrikoki jarrita. Eszena itsas olatuen gainean garatzen da, non, jada aipatutako nereidekin batera, aingeruak eta izurdeak jolasten agertzen diren. Hortaz, zizelkatutako gaia Neptuno jainkoaren segizioak eramandako hildakoak Elisear Zelaietara egindako bidaia da.

Sarkofagoa berrerabiltzean kolegiatako kideek interpretazio kristaua eman zioten. Ondorioz, behin gaia aztertuta, hildakoaren arima zerura egiten zuen bidaia bezala interpretatu zuten. Gainera, zizelkatutako izurdeak bataioarekin lotu zituzten, horiek fededunen arimak betiereko loriara gidatzen zituztelako. Esanahi horrek, sarkofagoaren funtzio sinbolikoaren sendotzearekin batera, sarkofagoak bataiarri bezala erabiltzearen zergatia azalduko luke. Oro har, kristauen arabera, bataioa zen Kristoren eskutik hil eta gizon berri bat bezala berpiztea⁴¹.

³⁸ FITÉ LLEVOT, Francesc. “El sarcòfag romà de la parròquia de Sant Vicenç d’Àger (La Noguera): història i vicissituds”, *Taül*, 21. zk., 2007, 14. or.

³⁹ *Ibid.*, 16. or.

⁴⁰ MORALEJO, Serafin. *Op.cit.*, 193. or.

⁴¹ *Ibid.*, 193. or.

Azkenik, funtzio sinbolikoa alde batera utzita, sarkofagoa bere forma eta tamainagatik berrerabili zen, murgilketa (gorputz osoa) eta infusio errituengatik (buruan ura botatzea) bataiatzeko aproposa zelako.



4. irudia. San Vicenç d'Àger parrokiako sarkofagoa (II. mendea).

c) Berrerabiltze arkitektonikoa

Erdi Aroan, *spolia* ohikoenetako bat Antzinako sarkofagoen materiala arkitekturan eraikuntza-material gisa berrerabiltzea zen, harrobi hispaniarrak harririk gabe baitzeuden. Hala ere, Katalunian funtzio apaingarriak eta ikonografikoak dituzten arkitekturan txertatutako sarkofagoen bi adibide daude.

Lehen adibide gisa, Gironako San Felixeko kolegiata ohiaren zortzi sarkofago erromatarrik ditugu (5. eta 6. irudia). Zortzi sarkofago horien kokapena berezia da, abside nagusiaren burualdeko hormetan zikiratuak baitaude, lau sarkofago alde bakoitzean.

Sarkofago hauek IV. mendeko erromatar tailer berantiarra batetik inportatuak izan ziren eta historiografia tradizionalak San Felix elizatik gertu zegoen nekropoli batean aurkitu zirela baieztatzen du⁴². Bestalde, 2010ean, tenpluaren burualdean indusketa batzuk egin ondoren, konturatu ziren egungo espazio presbiteriala, jatorriz, lurperatze-gunea izan zela. Hortaz, aditu batzuen arabera, zortzi sarkofago horiek San Felixi eskainitako Antzinako *Martyrium* paleokristau orube batean zeuden. Lursail horretan hainbeste sarkofago aurkitu izanak arrazoi nagusi bat du: kristauak uste zuten *martyr* baten ondoan hilobiratzean honek hildakoa lagunduko zuela (*tumulatio ad sanctos*).

⁴² MORÁN SANCHEZ, Carlos Jesus eta MATEOS CRUZ, Pedro (ed.). *Exemplum et Spolia. La reutilización arquitectónica en la transformación del paisaje urbano de las ciudades históricas*. Merida: Mytra, 2020, 209. or.

Zortzi sarkofagoak absideko hormetan txertatuta dauden arren, guztiek ez dute gai kristau bat azaltzen, horietako bik gai paganoak aurkezten baitituzte: Proserpinaren bahiketa eta Lehoiaren Ehiza. Orobat, gainerako sei sarkofago paleokristauek dekorazio-elementu eta programa ikonografiko desberdinak dituzte, nahiz eta gehienbat eszena biblikoak zizelkatuak dituzten, besteak beste Artzain Ona edo Susanaren historia⁴³.

Ez dago jakiterik ez nork, ez noiz enkargatu zituzten sarkofagoak; izan ere, sarkofagoen aurrealdea baino ez da kontserbatu, eta horietan ez dago inskripziorik. Dena den, sarkofago hauen material estimatuagatik (Proserpinaren sarkofagoa, Parosko marmolez ekoitzia eta gainerakoak Karrarako marmolez landuak) eta aurkitu ziren kokapenagatik, inguruko aberatsek beren burua lurperatzeko eta beren estatusa erakusteko erosi zituztela suposatzen dute. Era berean, ikertzaileek diote hormako sarkofagoetako bat, horman sartu aurretik, San Felix elizako aldare nagusian zegoela, elizaren titularra zen Santuaren erlikiak gordetzen baitziren bertan⁴⁴. Sarkofagoak erlikia-ontzi gisa berrerabiltzea oso ohikoa izan zen Erdi Aroan zehar Hispanian, hainbat adibide baitaude⁴⁵. Horietako bat Itsasoko Andra Mariko sarkofagoa da, bataiarri bezala erabili aurretik Santa Eulalia-ren hilobia izan zena.

Zortzi sarkofagoek elementu arkitektoniko gisa berrerabiltzearen datazioari dagokionez, aurrez aurre dauden bi posizio historiografiko bereiz daitezke. Alde batetik, XIV. mendean horman zeudela uste dutenak eta, bestetik, XII. mendean berrerabili zirela diotenak. Moralejok azken bertsio horri eusten dio, Cabestany-ko maisuak pieza horiek XII. mendean ikusi zituela eta horietako bat Saint-Hilaire d'Aude elizan faltsutu zuela esanez. Alabaina, azterlan berriek Moralejoren baieztapenak eztaba daezintzat jotzen dituzte; izan ere Cabestanyko maisuaren izenpean urte batzuk geroago pieza horiek kopiatu ahal izan zituzten zenbait artisau daude.

Sarkofago horiek absideko hormetan kokatzeak Erdi Aroan baloratutako objektuak izan zirela adierazten du. Berrerabilera horren zergatia zehatz-mehatz ezagutzen ez den arren, jakina da nahita egindako praktika izan zela, eta sarkofagoak ez zirela erabili soilik eraikuntza-material gisa. Berrerabiltzearen arrazoietako bat objektu horiek San Felixen erliekiekin eta haren gurtzarekin lotu izana izan liteke. Bestalde, XII. mendeko Erdi Aroko berpizkundea zela eta,

⁴³ PLA CARGOL, Joaquin. "Periodos `Paleocristiano, Visigótico y Prerrománico en las comarcas gerundenses", *Revista de Girona*, 36. zk., 1966, 10. or.

⁴⁴ *Ibid.*, 10. or.

⁴⁵ Europan ere aurkitzen ditugu erlikia-ontzi funtzioa duten Antzinaroko sarkofagoak, hala nola, Capuako katedralean kokatzen den Opolito eta Fedra mitoaren sarkofagoa (Campania). PALMENTIERI, Angela. *Op.cit.*, 25. or.

estilo klasikora bueltatzeko joera izan zen, eta beraz, litekeena da sarkofagoak hormetan txertatzea, edertasunagatik eta antzintasunagatik miresteko⁴⁶.



5. eta 6. irudiak: Gironako San Felix elizako sarkofagoak (III-IV. mendeak).

Bestetik, Tarragonako katedralaren fatxada nagusian, zehazki eskuineko ate erromanikoaren gainean, arkitekturari atxikitako Antzinako sarkofago bat dago, Bethesdako sarkofagoa izenekoa (7. irudia).

Hilkutxa hau Erroman ekoitzi zen IV. mendean eta Hispaniara enkargu baten ondorioz heldu zen. Egun ez dago jakiterik nork enkargatu zuen, baina objektuaren ikonografiatik hileta-helburu batekin izan zela ondorioztatzen da. Sarkofago honen ikonografiak, hildakoaren arimaren berpiztearen itxaropenarekin lotutako Itun Berriko eszena multzo bat islatzen du. Ezkerretik hasita, gai hauek zizelkatuta daude: itsuaren miraria, Hemorroisa edo odol isuria, Bethesdako miraria (elbarriaren miraria), Zakeoren konbertsioa eta Kristoren sarrera Jerusalem⁴⁷. Jerusalemen atzean hiriaren harresiak ikus daitezke, eta horrek

⁴⁶ MORÁN SANCHEZ, Carlos Jesus eta MATEOS CRUZ, Pedro (ed.). Op.cit., 212. or.

⁴⁷ MUÑOZ, MELGAR, Andreu. “Bethesda. La historia de un sarcófago”. In: *ACSF Tarragona* (sarean). https://youtu.be/zj1VdDF_NBo (kontsulta data 2023/04/27)

sarkofago hau "hiriko ateak" izenez ezagutzen den sarkofago talde barnean sartzea ekartzen du.

Aditu batzuen arabera, sarkofago hori Tarragonako nekropolitik *spoliatu* zuten; beste batzuen aburu berriz, gaur egun Tarragonako katedrala dagoen orube berean zegoen Antzinako tenplu pagano batetik hartu zutela diote⁴⁸. Hala ere, ziur dakiguna da Erdi Aroan eta zehazki XII. eta XIII. mendeen artean Tarragonako Santa Tekla katedralaren fatxadan sartu zela, hau da, katedrala eraiki zen garaian⁴⁹. Hau jakina da eraikinaren fatxadarekin nolabaiteko batasun formala lortzeko, harginek ukitu estilistikoak egin zituztelako sarkofagoan.

Sarkofago hau hainbat arrazoiengatik berrerabilia izan zen. Moralejok berrerabilpenaren arrazoi nagusietako bat eskultura-lanbidearen krisi sakona izan zela dio, momentu honetan klaustroko lantegia desagertu eta eskultura gotiko berria agertu arteko trantsizio-une batean baitzeuden⁵⁰. Ondorioz, objektu honen kalitatea eta materiala oso baloratuak izan ziren, fatxadan funtzio-dekoratibo gisa jarri zutelako.

Bestalde, Marc Sureda-k eta Gerardo Boto-k sarkofago honen berrerabilpenaren arrazoiaren buruzko beste hipotesi bat planteatzen dute. Ikertzaileek, sarkofagoak eraikina apaindu eta ospe historikoa emateaz gain (Tarragonako elizaren garaipena eta hiriarren jatorri militar eta martirialak gogoratzen ditu), Erramu Igandeko erritualaren ibilbidearen helmuga (katedralaren atea) finkatzen zuela diote⁵¹. Hortaz, sarkofago honek aurkezten duen motibo ikonografiko batengatik aukeratua izan zen, hain zuzen ere Kristoren sarrera Jerusalem. Katedralaren atearen sinbologia eta funtzionaltasuna erakusten ditu. Erramu igandean Kristo garaile Jerusalemira iritsi zela ospatzen da, eta kasu honetan katedraleko atea Jerusalemeko atea izango litzateke⁵².

⁴⁸ MORÁN SANCHEZ, Carlos Jesus eta MATEOS CRUZ, Pedro (ed.). Op.cit., 211. or.

⁴⁹ Europan ere aurkitzen ditugu apaingarri funtzioa duten Antzinaroko sarkofagoak, hala nola, Florentziako bataiategian dagoen ardoaren merkatariaren sarkofagoa.

⁵⁰ Ibid., 211. or.

⁵¹ SUREDA JUBANY, Marc eta BOTO VARELA, Gerardo. "Los lugares y los protocolos del Domingo de Ramos en la Tarragona medieval: liturgia, ciudad e imagen". In: LUCHERINI, Vinni eta BOTO VARELA, Gerardo (ed.). *La cattedrale nella città medievale: i rituali*. Erroma: Viella, 2020, 270. or.

⁵² Ibid., 273. or.



7. Irudia: Bethesdako sarkofagoa (IV. mendea), Tarragonako Santa Tekla katedrala.

d) Al-Andaluseko berrerabilpenak

Orain arte aztertu diren sarkofago guztiak kristau hispaniarrek espoliatutako objektuak izan dira, baina kontuan izan behar dugu 711 eta 1492 urteen artean Iberiar Penintsulako zati handi bat dinastia musulmanek okupatu zutela.

Hasiera batean, musulmanek Antzinako piezak espoliatu zituzten beren balio eraikitzaile eta apaingarriagatik, baina IX. mendean balio diskurtsibo gehigarria eman zitzaizkien. Garai hartan, antigoaleko gauzak, *ayā'ib wa ātār al-'Awā'il* (hondakin miresgarriak) bezala ulertu ziren, iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hausnarketa bat gogorarazten zutenak⁵³. Hori dela medio, emirrek eta kalifek objektu horien kontrola hartu zuten, sarkofagoak bezala, eta beren dinastiaren boterea legitimatzen zuten objektu gisa erabili zituzten. Horregatik X. mendean Madinat Al-Zahra jauregian eta Kordobako alkazarrean sarkofagoak dekorazio gisa, edo ur-pila gisa erabili zituzten. Berrerabilpen horren ebidentzia, XII. mendeko Ibn Bakuwal XII. mendeko historialariak idatzitako pasarte batean dago, honako hau adierazten duena:

luego las aguas corrían por cada patio a través de tuberías de plomo y salían al exterior a través de fuentes que tenían diferentes formas y eran de oro, plata y

⁵³ ELICES OCÓN, Jorge. “La reutilización de antigüedades en al-Ándalus: ¿recurso o discurso?”*, *Archivo Español de Arqueología*, 94. zk., 2021, 5. or.

*cobre, llenando los enormes estanques, las bellas albercas y los maravillosos zafareches con pilones de mármol romano de bellísimos dibujos*⁵⁴

Madinat Al-Zahra jauregi-esparruan aurkitzen den sarkofago kopurua nahiko handia da, III. mendeko 25 sarkofago erromatar baitaude. Horietatik, hiru nabarmentzen dira, jatorrizko testuingurutik at egon arren, ondo kontserbatu baitira: Meleagro eta Kalidon basurdearen ehiza sarkofagoa (8. irudia), Hades-en Atearen sarkofagoa (9. irudia) eta Filosofoen eta musen sarkofagoa (10. irudia). Hirurek zuloak dituzte hilkutxaren oinarrian eta alboetako goiko ertzean, hortaz, iturri-pila erabiltzeko egokitu zituztela agerian dago. Era berean, badakigu sarkofago horiek berrerabili aurretik iztuku geruza batekin zaharberritu zirela⁵⁵.

Gai zehatzak garrantzi handirik ez duen heinean, ez da sarkofago bakoitzaren gaia azalduko, baizik eta berrerabileraren zergatia modu orokorrean aztertuko da. Alde batetik erromatar sarkofagoak Antzinate Klasikoari buruzko erreferentzia bisual bat sartzeko nahari erantzuteko berrerabiltzen dira. Kontuan izan beharra dago, arabierara itzulitako testu greko-latindarrak musulmanen jakintza-iturri nagusi ziren giro batean kokatzen garela.⁵⁶ Kasu honetan, sarkofagoek beren balioa galtzen dute hileta-irudi gisa, Antzinaroko Jakintzaren alegoria bihurtzeko. Sarkofagoak, jada IX. mendean musulmanek berezkoa bezala aldarrikatu zuten iragan baten aipu testual eta bisualak dira. Gainera, une honetan Omeiatarrek haien boterearen legitimazio gisa baliatu zituzten. Hortaz, giro horretan Antzinaroko musen eta filosofoen irudiak inspirazio eta eredu gisa erabil zitezkeen. Era berean irakaskuntzari, arteen lanketari, zientzien ariketari edota jakintzaren kontserbazio eta bilketari zegozkien esparruetan kokatzen baziren, babes elementu gisa baliatu zitezkeen.

Bestalde, Jean Seznec-ek defendatzen du sarkofago hauek, dinastia omeiatarreko kideek haien burua Antzinateko heroi eta jainko gisa ikusten zutelako berrerabili zituztela. Hortaz, agertzen diren eszenak haien burua legitimatuko lukete⁵⁷.

⁵⁴ CALVO CAPILLA, Susana. Op.cit., 134. or. Ikerlari honek erabilitako jatorrizko erreferentzia: AL-MAQQARI, Mohamed. *Nafh al-tib*. Beirut: 1968, 464. or.

⁵⁵ Ibid., 144. or.

⁵⁶ Ibid., 158. or.

⁵⁷ Ibid., 135. or. Ikertzaileak erabilitako jatorrizko erreferentzia: WEITZMANN, Kurt. "The Survival of Mythological Representations in Early Christian and Byzantine Art and their Impact on Christian Iconography", *Dumbarton Oaks Papers*, 14. zk., 1960, 45-68. orr.



8. Irudia: Meleagro eta Kalidon basurdearen ehiza sarkofagoa (III. mendea), Pilaretako patioa.



9. Irudia: Hadesen Atearen sarkofagoa (III. mende)



10. Irudia: Filosofoen eta musen sarkofagoa (III. mendea), Medinat al-Zaharako guneko arkeologikoaren biltegia.



11. Irudia: Cercadillako *palatium*-aren inguruan aurkitutako kristau sarkofagoaren aurrealdea.

Hala ere, apaingarri eta ur-piletatik at beste motatako berrerabilpenak ere dira ikusgai. Hala nola, Cercadillako *palatium*-ean kokatzen den sarkofago (11. irudia) baten zatia, musulmanen garaiko etxe baten ate gisa erabili zen. Lastraren dekorazioa gorantz jarri zuten, irudiak zapatzeko asmoarekin⁵⁸. Horrela musulmanen boterea legitimatzen zuten, bai Antzinaroko gizarte eta Kristauen aurrean.

⁵⁸ GARCÍA GARCÍA, Miguel Angel. “La reutilización y destrucción de los sarcófagos romanos de Baetica durante la Edad Media”, *ROMVLA*, 3. zk., 2004, 246-247. orr.

5. ONDORIOAK

Historian zehar, arteak etengabeko birziklatze-prozesua bizi izan du, eta sarkofagoak Europa osoan gertatu den fenomeno horren adibide garbia dira. Prozesu honetan, Antzinateko sarkofagoen jatorrizko funtzioa eta esanahia batzuetan galdu diren arren, argi dago Erdi Aroan espoliazioari esker objektu horien funtzioa eta esanahi berriak sortu zirela. Panorama anitz honek artea denboran zehar nola egokitzen eta eraldatzen den erakusten digu, espazio- eta kultura-aldaketak zein obren interpretazio eta jabetze desberdinak islatuz. Beraz, jatorrizko funtzioa galdu arren, sarkofagoak erabiltzeko bilakaera horrek gogoeta egitera garamatza, arteak belaunaldietan zehar hainbat mezu egokitzeko, berrasmatzeko eta transmititzeko duen gaitasunari buruz.

Halaber, Erdi Aroko gizarte kristau eta musulmana Antzinateko sarkofagoak berrerabiltzeak, Antzinateko artearen ezagutza eta estimua agerian uzteaz gain, Erdi Aroko haustura artistikoaren mitoari erronka egiten dio. Praktika horrek erakusten du iraganekiko jarraitutasun historikoa eta belaunaldien arteko elkarrizketa, baita Erdi Aroko gizarteak artelanak bere beharren eta sinesmenen arabera egokitzeko eta definitzeko duen gaitasuna ere. Izan ere, kristauek fedea indartzeko eta gizabanakoen handitasuna goresteko tresna gisa erabili zituzten heinean, musulmanek Antzinateko iraganaz jabetzeko eta euren boterea legitimatzeko erabili zituzten. Ondorioz, sarkofagoak berrerabiltzeko ikuspegiak arteko desadostasun horiek agerian uzten dituzte Erdi Aroko gizartean dauden konplexutasun kulturalak eta botere-dinamikak.

Laburbilduz, Antzinateko sarkofagoen *devehere*, *adapte* edo *coæquare* kultura-fenomeno esanguratsua izan zen Europa osoan Erdi Aroan. Prozesu horrek Antzinateko ezagutza eta estimua islatzen ditu Hispaniako testuinguruan, eta kristauek eta musulmanek egokitzearen hartutako motibazioak eta estrategiak erakusten ditu. Iraganaren eta orainaren arteko trukaketa horiek Erdi Aroko gizartearen kultura-nortasuna aberastu zuten, tradizio eta botere desberdinen arteko elkarreragin konplexuak agerian utziz.

6. ITURRIAK, BIBLIOGRAFIA, WEBGRAFIA ETA ARGAZKIEN ITURRIAK

a) Iturriak

- YEPES, Antonio. *Crónica General de la Orden de San Benito*. Iratxe: 2. lib., 1615. (1960ko berrargitalpena)

b) Bibliografia

- ÁLVAREZ VIDAL, Sergio et al. “La utilización del mármol de Estremoz en la escultura hispánica de la Antigüedad Tardía: Los sarcófagos”, *DigitAR*, 3. zk., 2016, 119-128. orr.

- BRILLIANT, Richard eta KINNEY Dale. *Reuse Value. Spolia and Appropriation in Art and Architecture from Constantine to Sherrie Levine*. Farnham: Ashgate Publishing Limited, 2011.

- BRENK, BEAT. “Spolia from Constantine to Charlemagne: Aesthetics versus Ideology”. In: TRONZO, William et al. *Studies on Art and Archeology in Honor of Ernst Kitzinger on His Seventy-Fifth Birthday*. Cambridge: Dumbarton Oaks Papers, 41. lib., 1987, 103-109. orr.

- CAILLET, Jean-Pierre eta LOOSE, Helmuth Nils. *La vie d'éternité: la sculpture funéraire dans l'antiquité chrétienne*. Paris: Les Éditions du Cerf, 1990.

- CALVO CAPILLA, Susana. “Madinat al-Zahra’ y la observación del tiempo: el renacer de la Antigüedad Clásica en la Córdoba del siglo X”, *Anales de Historia del Arte*, 22. zk., 2012, 131-160. orr.

- CLAVERÍA NADAL, Montserrat. “El sarcófago romano. Cuestiones de tipología, Iconografía y centros de producción”. In: NOGUERA CELDRAN, Jose Miguel eta CONDE GUERRI, Elena (ed.). *El sarcófago romano: contribuciones al estudio de su tipología, iconografía y centros de producción: Actas de las Jornadas de Estudio celebradas en la Universidad de Murcia del 8 al 17 de mayo de 2000*. Murcia: Universidad de Murcia, 2001, 19-50. orr.

- CRESSIER, Patrice. “El acarreo de obras antiguas en la arquitectura islámica de primera época”, *Cuadernos emeritenses*, 17. zk., 2001, 309-334. orr.

- ELICES OCÓN, Jorge. “La reutilización de antigüedades en al-Ándalus: ¿recurso o discurso?”*, *Archivo Español de Arqueología*, 94. zk., 2021, 2-18. orr.

- ELSNER, Jas. ‘The Christian Museum in the South of France: Antiquity, Display and Liturgy from the Counter-Reformation to Aftermath,’ *OAJ*, 3. zk., 2009, 181-204. orr.

- FITÉ LLEVOT, Francesc. “El sarcòfag romà de la parròquia de Sant Vicenç d’Àger (La Noguera): història i vicissituds”, *Taül*, 21. zk. , 2007, 14-18. orr.

- GARCÍA GARCÍA, Miguel Angel. “La reutilización y destrucción de los sarcófagos romanos de Baetica durante la Edad Media”, *ROMVLA*, 3. zk., 2004, 239-256. orr.

- KIILERICH, Bente. “Antiquus et modernus: Spolia in Medieval Art: Western, Byzantine and Islamic”. In: QUINTAVALLE, Carlo Arturo (ed.). *Medioevo: il tempo degli antichi*. Milan: Electa, 2006, 135-145. orr.

- KINNEY, Dale. “Spolia. Damnatio and renovatio memoriae”, *Memoirs of the American Academy in Rome*, 42. lib., 1997, 117-148. orr.

- IDEM. "The Concept of Spolia." In: RUDOLPH, Conrad (ed.). *A Companion to Medieval Art: Romanesque and Gothic in Northern Europe*. Malden: Blackwell Publishing, 2006, 233-252. orr.

- MARTINEZ COUCE, Silvia. “Aproximación al patrimonio artístico y etnográfico relacionado con la figura del Conde Santo”. In: RECUERO ASTRAY, Manuel et al. (ed.). *El legado cultural de la Iglesia Mindoniense: Congreso do Patrimonio da Diocese de Mondoñedo*. Ferrol: Universidad da Coruña, 1999, 507-511. orr.

- MORÁIS MORÁN, José Alberto. *El sustrato de la Antigüedad “Clásica” en la escultura románica Hispana*. Leon: Universidad de León, 2009.

- IDEM. *Roma en el Románico. Transformaciones del legado antiguo en el arte medieval. La escultura hispana: Jaca, Compostela y León (1075-1150)*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 2013.

- MORÁN SANCHEZ, Carlos Jesus eta MATEOS CRUZ, Pedro (ed.). *Exemplum et Spolia. La reutilización arquitectónica en la transformación del paisaje urbano de las ciudades históricas*. Merida: Mytra, 2020.

- MORALEJO, Serafin. “La reutilización e influencia de los sarcófagos antiguos en la España medieval”. In: ANDREAE, Bernard eta SETTIS, Salvatore (ed.), *Colloquio sul reimpiego dei sarcofagi romani nel medioevo*. Pisa: BPR Publishers, 1984, 187-203. orr.

- PALMENTIERI, Angela. *Civitates spoliatae. Recupero e riuso dell’antico in Campania tra l’età post-classica e il medioevo (IV-XV sec.)*. Napoles: Università degli studi di Napoli Federico II Facoltà di Lettere e Filosofia, 2009-2010.

- PLA CARGOL, Joaquin. “Períodos Paleocristiano, Visigótico y Prerrománico en las comarcas gerundenses”, *Revista de Girona*, 36. zk., 1966, 1-20. orr.

- RODÁ DE LLANZA, Isabel. “Producción, materiales y circulación de sarcófagos en el Imperio Romano”. In: NOGUERA CELDRAN, Jose Miguel eta CONDE GUERRI, Elena (ed.). *El sarcófago romano: contribuciones al estudio de su tipología, iconografía y centros de producción: Actas de las Jornadas de Estudio celebradas en la Universidad de Murcia del 8 al 17 de mayo de 2000*. Murtzia: Universidad de Murcia, 2001, 51-78. orr.

- SUREDA JUBANY, Marc eta BOTO VARELA, Gerardo. “Los lugares y los protocolos del Domingo de Ramos en la Tarragona medieval: liturgia, ciudad e imagen”. In: LUCHERINI, Vinni eta BOTO VARELA, Gerardo (ed.). *La cattedrale nella città medievale: i rituali*. Erroma: Viella, 2020, 247-284. orr.

- TORRE MIGUEL, Begoña. *Los sarcófagos de la Antigüedad reutilizados durante la Edad Media en la Península Ibérica*. Oviedo: Universidad de Oviedo, 2022.

- VERASTEGUI Y SILVA, Soledad. “Los sepulcros de los santos: la piedad medieval, el sentido del “decoro” y el ornato durante los siglos del románico”, *Edad Media. Revista Historia*, 10. zk., 2009, 93-129. orr.

c) Webgrafia

- GARRISON, Elisa. "Otto III at Aachen", *Peregrinations: Journal of Medieval Art and Architecture*, 3. lib., 2010, 83-117. orr. <https://digital.kenyon.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1162&context=perejournal> (kontsulta data 2023/04/16)
- MUÑOZ, MELGAR, Andreu. "Bethesda. La historia de un sarcófago". In: *ACSF Tarragona* (sarean). https://youtu.be/zj1VdDF_NBo (kontsulta data 2023/04/27)

d) Argazkien iturriak

1. irudia: TORRE MIGUEL. Begoña. "El panteón de los reyes (Santa María de Oviedo) a través de la historiografía de los siglos XVI, XVII y XVIII", *Medievalia*, 18. zk., 122. or.
2. irudia: HEVIA, Agustin. "El sarcófago Ithacius". In: *Sociedad protectora de la Balesquida* (sarean) <https://www.martesdecampo.es/2022/03/26/el-sarcofago-ithacius/> (kontsulta data 2023/05/13)
3. irudia: "Sarcófago del "Conde Santo" San Salvador de Lourenzá". In: *Megalitica* (sarean) <http://megaliticia.blogspot.com/2019/02/sarcofago-del-conde-santo-san-salvador.html> (kontsulta data 2023/05/13)
4. irudia: "Canónica de Sant Pere de Àger". In: *Monestirs.cat* (sarean). <https://www.monestirs.cat/monst/nogue/> (kontsulta data 2023/05/16)
5. irudia: FORNS, Josep. "Basilica de Sant Feliu". In: *Art Medieval* (sarean). <https://www.artmedieval.net/> (kontsulta data 2023/05/16)
6. irudia: FORNS, Josep. "Basilica de Sant Feliu". In: *Art Medieval* (sarean). <https://www.artmedieval.net/> (kontsulta data 2023/05/16)
7. irudia: SAENZ, Jose Manuel. "Sarcófago de Bethesda". In: *Flickr* (sarean). <https://www.flickr.com/photos/brenus/> (kontsulta data 16/05/2023)
8. irudia: CALVO CAPILLA, Susana. "Madinat al-Zahra' y la observación del tiempo: el renacer de la Antigüedad Clásica en la Córdoba del siglo X", *Anales de Historia del Arte*, 22. zk., 2012, 141. or

9. irudia: “Encasaconmedina”. In: *Twitter* (sarean). <https://twitter.com/CAMedinaAzahara/status/>
(kontsulta data 2023/05/16)

10. irudia: CALVO CAPILLA, Susana. “Madinat al-Zahra’ y la observación del tiempo: el renacer de la Antigüedad Clásica en la Córdoba del siglo X”, *Anales de Historia del Arte*, 22. zk., 2012, 142. or.

11. irudia: GARCÍA GARCÍA, Miguel Angel. “La reutilización y destrucción de los sarcófagos romanos de Baetica durante la Edad Media”, *ROMVLA*, 3. zk., 2004, , 247. or.